

07/2025 UDALEKO OSOKO BILKURA

2025KO UZTAILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURARENAKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)

Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)

Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)

Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)

Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)

Agurtzane Nuñez Yarza (EAJ taldea)

Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Jon Burgaña Agoues

EZ BERTARATUTAKOAK:

Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)

Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)

Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2025ko uztailaren 29ean, arratsaldeko 19:00etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Jon Burgaña Agoues aritu da Idazkari lanetan.

Alkateak azaldu die bertaratukoei Idazkari Kontu-hartzailea baja egoeran dagoela eta bere ordeiz Jon Burgaña Agoues izango dela idazkari zereginetan. Alkateak berari eta bertaratukoei eskerrak eman ondoren, bilerari hasiera emanez Alkateak saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

EBAZPENAK

1.- IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA BERRITZEA ONARTZEA, HFP/1030/2021 AGINDUAREN ESPARRUAN.

EAJ taldeko zinegotziak, Agurtzane NúñezYarza andreak, hitza hartu du bere taldea planaren alde dagoela adierazteko, baina zehaztu du kontuan hartu behar dela idazkari kontu-hartzaileak txostenean Planaren 7. puntuari buruz esandakoa, organo arduradunei buruzkoa.

Alkate jaunak adierazi du plana Tracsarekin adostuta dagoela eta aurrerago testuari buelta bat emango zaiola eta Planaren 7. atala egokituko dela.

Espedientean dagoen dokumentazioa kontuan hartuta, Udalbatzak honako hau erabaki du aho batez:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Iruzuraren Aurkako Neurrien Plana, HFP/1030/2021 aginduaren esparruan berritzea onartzea.

2.- ANOETAKO A-14 LASARBE SEKTOREKO LU3 EREMURAKO “ANOETAKO LASARBE EREMUKO ARNASGUNEA” IZENENKO EXEKUZIO PROIEKTU BERRITUA ONARTZEKO PROPOSAMENA ETA OBRAK KONTRATATZEKO KONTRATAZIO-ESPEDIENTE, KONTRATUA ETA ESLEIPEN-PROZESUA ARAUTUKO DITUZTEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN ETA BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIAK ETA KONTRATAZIOARI DAGOKION GASTUA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

EAJ taldeko zinegotzi Agurtzane Núñez Yarza andreak hartu du hitza, eta adierazi du idazkari-kontuhartzailearen aurkako txostena dagoela, eta, hala den bitartean, haiek ez dutela aldeko botorik emango. Galdetu du, halaber, zergatik atzeratu den hainbeste esleipen-prozesua, proiektua duela 2 urtekoa izanik. Zinegotziak galdetu du, halaber, nork betetzen dituen gaur egun arkitekto-eginkizunak udalean, eta ohartarazi du zenbait inkongruentzia daudela espedienteko idazki batzuen datetan.

Alkate jaunak hartu du hitza, eta adierazi du proiektua Lasarbe eremuko urbanizazioarekin lotzeko beharra konplexua izan dela, eta, beraz, proiektua egokitu egin behar izan dela. Hori da, hain zuzen ere, atzerapenaren arrazoia. Bestalde, adierazi du Maider Romo andrea Udalak kontratatu duela eta udal-arkitektoaren eginkizunak betetzen dituela. Azkenik, zehaztu du idazkariaren kontrako txostenak ez duela prozedura zalantzan jartzen, baizik eta baldintza-agirietan eta prozeduran behatu beharko liratekeen hobekuntza batzuk azaltzen dituela.

Aurrekoei entzun ondoren, eta espedientean dagoen dokumentazioa kontuan hartuta, aldeko 6 botorengatik eta kontrako 2 botorengatik, Udalbatzak honako hau onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Anoetako A-14 Lasarbe sektoreko LU3 eremurako “ANOETAKO LASARBE EREMUKO ARNASGUNEA” izeneko exekuzio proiektu berritua eta onartzea ere obrak kontratatzeke kontratazio-espediente, kontratua eta esleipen-prozesua arautuko dituzten Baldintza Administatibo Berezien eta Baldintza tekniko Berezien Agiriak eta kontratazioari dagokion gastua.

3.- ANOETAKO ERROTALDEA AUZOA ERABERRITZEKO ENDARA INGENIEROS ASOCIADOS S.L. ENPRESAK EGINDAKO PROIEKTUA ONARTZEA.

EAJ taldeko zinegotziak, Agurtzane Núñez Yarza andreak, aurreko puntuan azaldutako arrazoi bera azaldu du (idazkari-kontuhartzailearen kontrako txostena), akordioaren aurka bozkatzeko.

Aurrekoei entzun ondoren, eta espedientean dagoen dokumentazioa kontuan hartuta, aldeko 6 botorengatik eta kontrako 2 botorengatik, Udalbatzak honako hau onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Anoetako Errotalde auzoa eraberritzeko ENDARA INGENIEROS ASOCIADOS S.L. enpresak egindako proiektua.

4.- ANOETAKO ISASTI, HOZPEL ETA ETXABURU AUZOAK ERABERRITZEKO ENDARA INGENIEROS ASOCIADOS S.L. ENPRESAK EGINDAKO PROIEKTUA ONARTZEA.

EAJ taldeko zinegotziak, Agurtzane Núñez Yarza andreak, berriz ere azaldu du aurreko 2 puntuetako arrazoi bera (idazkari-kontuhartzailearen kontrako txostena) akordioaren aurka bozkatzeko.

Aurrekoei entzun ondoren, eta espedientean dagoen dokumentazioa kontuan hartuta, aldeko 6 botorengatik eta kontrako 2 botorengatik, Udalbatzak honako hau onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Anoetako Isasti, Hozpel eta Etxaburu auzoak eraberritzeko ENDARA INGENIEROS ASOCIADOS S.L. enpresak egindako proiektua.

5.- ANOETAKO ALKARTASUNA TABERNA-JATETXEAREN ZERBITZU EMAKIDA BIDEZKO ESLEIPEN PROZEDURARI HASIERA EMATEA.

EAJ taldeko zinegotzi Agurtzane Núñez Yarza andreak hartu du hitza, eta galdetu du ea zergatik kontratatu den Alejandro Castro abokatua, eta are gehiago, zergatik egin den kontratazio hori inolako esleipenik gabe. Zinegotziak adierazi du garrantzitsua iruditzen zaiela Alkartasuna taberna-jatetxea herriko erretiratuentzat eta gainerako bizilagunentzat irekita egotea, baina uste dute prozedura ere garrantzitsua dela. Aurrekoa esanda, ebazpenaren aldeko botoa emango dute.

Alkateak hitza hartu eta abokatua kontratatzeko izapideak egin direla adierazi du, idazkaritzakoak izan ezik.

Aurrekoak entzun eta espedienteari erantsitako dokumentazioa aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Anoetako Alkartasuna taberna-jatetxearen zerbitzu emakida bidezko esleipen prozedurari hasiera ematea.

6.- LEHEN ERABILERA TASAN DAGOEN AKATSA ZUZENTZEA.

Espedientean jasotako dokumentazioa kontuan hartuta, Udalbatzak aho batez honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Lehen erabilera tasan dagoen akatsa zuzentzea.

Horrela geldituko litzateke:

Lehen erabileraren lizentzia

Mota	Zenbatekoa (%)
Etxebizitza bakoitzeko (EIOZ gainean)	0,1
Trasteleku bakoitzeko (EIOZ gainean)	0,1
Garaje plaza bakoitzeko (EIOZ gainean)	0,1
Merkatal lokal bakoitzeko (EIOZ gainean)	0,05

7.- UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN ORDENANTZAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA.

EAJ taldeko zinegotzi Agurtzane Núñez Yarza andreak hartu du hitza, eta bere taldearen abstentzioa adierazi du, ez baitute proposamena aztertzeko astirik izan.

Aurrekoei entzun ondoren, eta espedientean dagoen dokumentazioa kontuan hartuta, aldeko 6 boto eta 2 abstentzio badaude, Udalbatzak honako hau onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Behin behinean onartzea Udal Etxebizitza Tasatuen ordenantza.

8.- 2026 URTERAKO KORPUTS EGUNA, EKAINAK 4, TOKIKO JAIEGUN BEZALA ZEHAZTEA.

Espedientean jasotako dokumentazioa kontuan hartuta, Udalbatzak aho batez honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea 2026 urterako Korputs eguna, ekainak 4, tokiko jaiegun bezala.

I. GOBERNU ORGANOEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

ALKATETZA

9.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

EAJ taldeko zinegotziak, Agurtzane Núñez Yarza andreak, informazioa eskatu du 296. dekretuari buruz, zehazki, Ane Calvo arkitekto teknikoaren egoerari buruz... bere lanpostua betetzen ari den, beste udal batean praktiketan ari den, itzuliko den... Eta alkateak erantzun du egoera zaila dela udalarentzat. Ane Calvok probaldia amaitu zuela Anoetako Udalean eta legeak ahalbidetzen zion bezala dagokion eskaera egin ondoren Tolosako Udalera joan dela egonkortze prozesuan bertan ere lortu zuen postuko probaldia egitea. Ordezkoak lortzeko lanean aritu gara eta oraindik ere horretan dihardugu.

EAJ taldeko zinegotziak, Agurtzane Núñez Yarza andreak, 349 zenbakiko dekretuari buruzko informazioa eskatu du, zehazki 2024ko dirulaguntza baten kreditua aldatzeari buruzkoa. Alkateak erantzun du 2024an ezin izan zela dirulaguntza eman, eta, beraz, zenbatekoa soberakinera igaro zela. Udalarentzat lehentasunezko eta orain 2024ari zegokion zenbatekoa erabili dela.

EAJ taldeko zinegotziak, Agurtzane Núñez Yarza andreak, 357/358/369 Dekretuei buruzko informazioa eskatu du, zehazki, Aitor Gabirondo abokatu hirigilea kontratatzeari buruzkoa. Alkateak erantzun du demanda bat jaso duela Udalak eta horren aurrean Udala legez babesteko beharrezko aholkularien kontratazioak burutzeari buruzko dekretuak direla.

Azkenik, EAJ taldeko zinegotziak, Agurtzane Núñez Yarza andreak, 365. eta 367. dekretuei buruzko informazioa eskatu du, eta Alkateak erantzun du Lasarbe R1.A1 eremuko etxebizitzaren lizentziak aztertu eta horiei erantzuna ematen dien dekretuak direla.

ANTOLAKUNTZA



ANOETAKO
UDALA

10.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Ez da ekarpenik izan puntu honetan.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

GALDE-ERREGUAK

11.- GALDE-ERREGUAK.

EAJ taldeko zinegotziak, Agurtzane Núñez Yarzak, hitza hartu du eta galdetu du zergatik 2 hilabetetan ez den osoko bilkurarik egin, eta hainbeste puntu metatu diren Udalbatza honentzat.

Alkateak erantzun du Udal Gobernuarentzat lehentasunezko gaiak Alkartasuna taberna-jatetxearen eta Lasarbeko aisialdi-eremuaren esleipena izan direla. Asmoa, dokumentazio guztia ekainerako izatea zen eta udalbatzak atzeratzen joan dira dokumentazio horren zain. Azkenean, dokumentazioa osatzea asko kostatu denez, espero baino gehiago luzatu da egoera eta larrialdiko gaiak hauek zirenez, udalbatza ere atzeratzen joan da, tartean gai berriak sartuz Udalbatzarako.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:24tan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

Jon Burgaña Agoues



ANOETAKO
UDALA